

## KABIA

**Ez da 16 udal egoitzen eskumena bereganatzeko tresna. Ez dio irtenbide eraginkorrik ematen.**

**GFaren proposamena gizarte zerbitzuen eredu osoa aldatzeko tresna da.**

1. **EH Bilduren benetako borondate politikoa Gipuzkoako gizarte zerbitzu guztiak zuzenean kudeatzearena da.**  
(I. Eranskina. Aipamen zehatzak)
2. **Gipuzkoako gizarte zerbitzuen ereduaren aldaketaren benetazko zentzuaren balorazioa:**
  - Hirugarren sektorearen desagerpena (irabazi asmorik gabeko elkarteak), milaka profesional eta bolondres batzen dituenak, Gipuzkoako gizarte zerbitzuen ereduak punta-puntakoa bilakatzen lagundu duena. Honako elkarteak dira, besteak-beste: ATZEGI-GUREAK (adimen-minusbaliotasuna), ASPACE (garun-paralisia), GAUTENA (autismoa), AGIFES (garun-gaixotasuna), MATIA (adineko pertsonak), GURUTZE GORRIA, CARITAS, etab.
    - 335 egoitza Gipuzkoan
      - 194 pribatuak dira (irabazi asmokoak eta asmorik gabekoak)
      - GFAk 67 egoitzen jabetza du, eta soilik 12 kudeatzen ditu zuzenean.
  - Aldaketa eredu ez eraginkorra. Hirugarren sektoreak, hain zuzen ere, elkarteek osatzen duten hirugarren sektoreak, segidako abantailak ditu:
    - Gizartearentzako erakunde oso ezagunak dira. Egitura kalean bertan dute eta, beraz, herritarrengandik oso gertu daude.
    - Irabazi asmorik gabeko elkarteak dira eta, ondorioz, irabaziak jardueran bertan inbertitzen dituzte eta irabaziak izatea lehenesten ez dutenez iraunkortasuna gehiago bermatzen dute.
    - Lankidetzaren sareak ezartzen dituzte eta, horrek, gizarte-zerbitzuen sistema indartzen du.
  - **Eredua garestiagoa da administrazio publikoarentzat.** Beraz, Larraitz Ugarte bozeramailearen segidako adierazpenak gezurra dira: **"Kudeaketa eredu hori egokiagoa da, baita ekonomia kontuan hartzen badugu ere"**.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren Txostena (2012ko otsaila):

"Bataz beste zahar-egoitza publikoen kostua (32.941 euro urtean) %50 garestiagoa da egoitza pribatuena baino (21.375 euro)".

- **Eredua garestiagoa da erabiltzaileentzat,** izan ere, zenbat eta garestiagoa izan egoitza bateko lekua, orduan eta diru gehiago ordaindu beharko du erabiltzaileak.

- Erabakiak **Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen gaineko Legearen aurka** egiten du **(II Eranskina)**.
  - Proposamenak **Batzar Nagusietako lehengo legealdiko akordioei bizkar ematen die**, hain zuzen ere, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen gainean hirugarren sektorearekin (irabazi asmorik gabeko erakundeak) zein enprekin hitzartutako kudeaketari buruz lortutako akordioei.  
(II. Eranskina, aipamenak hitzez-hitz)
  - Ez da bidezkoa eta, gainera, gizartearentzat atzerakoia da, hirugarren sektoreko irabazi asmorik gabeko erakundeak segidakoekin parekatzea: “Enpresen interesen hegemonía” eta “gizarte-klase jakin bateko interesen pean jartzea” (Ander Rodríguez, 28/08/2010). Era berean, ez da bidezkoa enpresa pribatuekin, izan ere, Foru Arau batek araututa gehienez %3ko irabazia izan dezakete.
  - Bidegabekeria horri aurre egiteko, EAJ-PNVk **bilerak** egingo ditu Gipuzkoako hirugarren sektoreko ordezkariekin. Eta helburua honakoa da: Gizarte politikan lan egiten duten ordezkarien iritzia ezagutzea eta gure kezka adieraztea.
- 3. Gipuzkoako Foru Aldundiak lehenbailehen honakoa egin behar du: 16 udal-egoitzen kudeaketa bere gain hartu.**
- Eusko Legebiltzarraren Gizarte Zerbitzuetako Legea (22.2 eta 41.3 artikulua) bete behar du.
  - Aldebakarreko proposamenak egiteari utzi behar dio eta Politika Batzordean zein Egoitzetako Batzordean berriro negoziatzeari ekin behar dio.
  - Baina aitzitik,
    - Kabia Organismo autonomoa sortzeko Foru Arau proiektuaren Memoria Ekonomikoak bakarrik 5 zeharren-egoitzen azterketa egiten du.
    - Gainerako 11 udal zehar-egoitzen azterketa aurrerago egiteko utzi du.
    - Gezurra da egoitzen eskualdaketari buruz udalekin akordioak lortu dituela.
  - Foru diputatuak erakutsi nahi du ereduaren arteko talka dagoela eta, ondorioz, Gipuzkoako lehentasunak baztertzen ditu.

**GFaren proposamena gizarte zerbitzuen eredu osoa aldatzeko tresna da.**

## **HITZEZ HITZEZKO AIPAMENAK**

### **LEHENGO LEGEALDIAN:**

- Ander Rodriguezen iritzi artikulua: **2010eko abuztua**  
DIARIO VASCO

*"Gizarte-klase jakin bateko interesak babestu nahi dira eta, horretarako, erakunde publikoen eta pribatuen arteko elkarlana erabiltzen dute. Sektore publikoa ordezkatu nahi dute herritarren beharrak bermatzeko, eta helburu hori agerian gelditzen da, adibidez, Foru Aldundiak onartutako Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuentzako Etorkizuneko Ereduan: "Zerbitzuak emango dira hirugarren sektorearekin eta enprekin hitzartuta eta, ondorioz, biak sare publikoaren zatitzat hartuko dira". Horrenbestez, enpresen interesen hegemonia ezarriko da, izan ere, enpresek uste dute Estatuak ohiko eginkizunak betetzen dituenean, irabaziak izateko aukera galtzen dutela".*

### **HAUTESKUNDE KANPAINA, 2011:**

- Foru Esparru-Hitzarmena (Bildu): **2011ko maiatza**  
(13.orria)  
*"Irizpide orokor bezala, foru gizarte-zerbitzuak kudeaketa publikokoak izango dira, kopagorik gabekoak, eta aurrekontu-sail nahikoa izango dute behar guztiei aurre egiteko".*

### **LEGEALDI HONETAN. GOBERNUAN:**

- Ander Rodriguezen agerraldia Batzar Nagusietan: 2011/10/03

*"Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren iritziz, beharrezkoa da arreta eredu berrikustea, berriz planteatzea eta pixkanaka urratsak ematea egoitza zentroen eta, orokorrean Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendekoak, eta, zehazki, Departamentu honen mendekoak diren baliabideen kudeaketa propioa izan dadin.*

*Hala ere, errealistak izan behar gara eta ohartun izan behar gara trantsizioa ez dela egun batetik bestera gertatuko. Aurreko gobernuek ezarritako ereduak baldintzatu egiten du Departamentuaren egungo egoera, hamarkadatan zehar, zeharkako kudeaketan oinarritutako eredu eraiki baita."*

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Programa: 2012/05/23  
(24. orrialdea)

3. Estrategia:

"Gizarte zerbitzuak, erantzukizun eta ekimen publikoa.

***Foru erantzukizuneko zerbitzuak modu progresibo batean eta estrategikoki publiko egitea.***"

3. Ekintza: **"zerbitzuak zuzenean kudeatzeko beharrezko egitura sortzea."**

- Batzar Nagusietan aurkeztutako idatzizko galdera bati erantzunez: 2012/07/09  
Espdte zbka. 09/C/05/0001234

Galdera:

"Gobernu Programaren baitan jasotakoaren arabera, gizarte zerbitzuak zuzenean kudeatzeko beharrezko egitura sortzeko asmoa du Foru Gobernuak. Noizko?, zein arlotan (zehaztu mesedez), zein da beharko lukeen egitura?..."

Erantzuna:

"Litekeena da hurrengo urtean zehar hura sortzea. Sortzekoa den egiturak Departamentuaren jardun-eremu guztiak har litzake, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen ondorioz egin beharreko eskumen-egokitzapenak afektatzen dituenengatik hasita. Batzar Nagusietako Gizarte Politikako Batzordeari proposamen bat laster aurkezteko beharrezko egitura une hauetan zehazten dihardugu."

- "Foru Arau Proiektua, zeinaren bidez sortzen baita "Kabia" izeneko foru organismo autonomoa, gizarte zerbitzuak kudeatu, eman eta gauzatzeko" 2014/09/08

Zioa:

1. Or. "Foru organismo autonomoa sortzeak aukera ematen dio Foru Aldundiari eredu aldaketa baterantz joateko, Gipuzkoan gizarte zerbitzuak zuzenean kudeatzeari begira", eta "foru organismo autonomoak, gerora, beregain hartu ditzake gaur egun irabazi asmorik gabeko entitate pribatuek – Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen batek horien gobernu eta kontrol organoetan parte hartzen duenean- ematen dituzten beste zerbitzu batzuk ere."

Art. 2.1. "Foru organismo autonomoaren funtsezko helburua honakoa da: Eusko Legebiltzarrak onartutako Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, ezarritako eskumen esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak agindutako zerbitzu eta funtzioak kudeatzea, ematea eta gauzatzea."

Art. 3. Eginkizunak: "Bere eginkizuna izango da bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak ematea, Eusko Legebiltzarrak onartutako Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, 22. Artikuluko 2. Atalean araututakoaren arabera."

2. atalean jasotako zerbitzuetako batzuk: *Helduentzako, desgaitasun egoeran dauden pertsonak, buruko gaixotasuna daukaten pertsonak, adin txikikoak, bazterkeria egoeran dauden pertsonak, etab. entzako egoitzak.*

Amaierako xedapenak. Lehena: *"Gipuzkoako Foru Aldundiak 2. Artikuluko 1. Atalaren arabera egingo dituen kudeaketa mandatuak izango dira, **hasiera batean**, udal titularitateko bigarren mailako arretako zerbitzuen kudeaketari lotutakoak, adineko pertsonentzako eta mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako egoitzei eta eguneko zentroei dagokienez."*

- KABIaren inguruko foru arau proiektua aurkeztera etorriko zeneko agerraldia. Ander Rodriguez: 2014/09/09

Ander Rodriguez:

*"Erakunde autonomoaren zabaltasuna bertan aipatzen da nola bigarren mailako zerbitzu guztiak kudeatzeko gai izango den, baita xedapenetan, esaten du: lehendabizi, prozesu hau burutu egin behar dugu. Bai ulertzen dugu, eta lehen aipatu dut, **guk kanporatuta daukagun zerbitzu batean arazoak baldin baditugu**, gaur egun, ez daukagu harraminta asko edo aukera asko edo alternatiba asko horri aurre egiteko. Eta honek aukera bat ematen digu. Hau da, **kudeaketa zuzenaren bidez, egoera horiei aurre egiteko**. Dena den, Aldundiak edo Departamentuak hartzen duen erabaki bakoitza bere memoria ekonomikoarekin etorriko da, eta onartu egin beharko da."*

- "Kabia Foru organismo Autonomoa sortzea justifikatzeko txostena"  
13. orria:

*"Modu bat baino gehiago dago Foru Aldundiaren ardurapeko gizarte zerbitzuen prestazioa kudeatzeko. **Gipuzkoako Foru Aldundiko oraingo Gobernu Taldearen borondatea da zuzeneko kudeaketaren formulen aukerak berreskuratzea**. Lehentasun politiko horretatik abiatuta, Gizarte Politikako Departamentuak hautatu du baliabide instrumental propio bat jartzea, zehazki, aipagai digun Kabia Organismo Autonomoa, konbentziturata baitago hori dela biderik egokiena azaldutako xedea lortzeko."*

14. orria:

*"Organismo Autonomoaren sorrera erabaki politiko baten ondorio da, Eusko Legebiltzarrak onartutako Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean aurreikusitako eskumenen berrantolaketa gauzatzeko, gaur egun administraziokoak ez diren operatzaileekin kontratatuta dauden zerbitzuen kudeaketa zuzena mantentzeko eta, pixkanaka handitzen joateko asmoz. Organismo autonomo baten egiturak betetzen ditu trantsizio egoera konplexu eta askotarikoei heltzeko egokiak diren kontrol publikoko, malgutasuneko, autonomiako eta dimentsiogarritasuneko baldintzak."*

15. orria:

*"... organismo honen sorrerak gastu gehigarria ekarriko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari; aukera hau, beraz, **ez da oso eraginkorra ikuspegi ekonomikotik**, organismo autonomoari agindutako zerbitzuen bolumena mugatua den bitartean."*

*"**Foru organismoaren balio erantsia** da konfluentzia prozesuen kudeaketarako eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Foru Arauaren Aurreproiektuko 2. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera*

*aginduko dizkion zerbitzuen kudeaketa beregain hartzeko beharrezkoak diren gaitasuna eta malgutasuna izango dituela."*

16. orria:

*"Etorkizunean, eta aurrekontuak aukera ematen duen neurrian, gaur egun kanpora aterata dauden zerbitzuak zuzenean hartu ahal izango dira."*

➤ **Ekonomia-Memoria:**

16. orria:

*"Nahiz eta Foru Organismo Autonomoaren sorrerak gainkostua suposatzen duen, Gizarte Politikako departamentuak kudeaketa-eredu hori aukeratu du arrazoiengatik: "Kabia Foru Organismo Autonomoa sortzeko arrazoiaren Txostenaren" IV. atalean azaltzen diren arrazoiengatik (bertan, zuzeneko kudeaketa eredu berreskuratzeko borondatea azaltzen da eta, era berean, honakoa dio: "Kabia Organismo Autonomoa da aipatutako helburua lortzeko bide egokiena")."*

➤ Larraitz Ugarte (7/10/2014):

*"EAJ eta PSEren jarrera Batzar Nagusietan (Foru Arau Proiektuari osoko zuzenketa) "ulergarria da, baldin eta gizarte zerbitzuak pribatuak egin nahi badituzte. Ez gaitu harritzen PNVk asmo hori izatea, baina bai PSEk. Beraz, PSEri dei egiten diot ezkerreko alderdi gisa Kabia babesteko kudeaketa publikoa lortzeko".*

*"Uste dugu sektore publikoa eraginkorragoa dela. Jakina da, hasieran inbertsioak egin behar direla, izan ere, Kabia antolatu behar da eta, horrek, gastuak sortuko ditu. Baina, epe luzera egokiagoa da kudeaketa-eredu hori, baita ekonomia kontuan hartzen badugu ere".*

Eusko Legebiltzarreko abenduaren 5eko 12/2008 Gizarte Zerbitzuen gaineko Legea:

- Zioa: "*Gero eta egoera konplexuagoei eta anitzagoei aurre egiteko, **beharrezkoa da hirugarren sektorearekin elkarlana sustatzea,...***".
- 41. 6. Art- (Foru Aldundiak). "Gizarte zerbitzuen kudeaketan eta ebaluazioan segidakoak **sustatu behar dira: hirugarren sektorea**, herritarren parte-hartzea, asoziazionismoa, boluntarioak, eta erabiltzaileen zein profesionalen parte-hartzea; betiere, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lagunduz".

Gipuzkoako Batzar Nagusietan lortutako adostasunak, hain zuzen ere, "Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen etorkizuneko eredia zehazteko hausnarketa estrategikoaren prozesuaren Ondorioei buruz" lortutako adostasunak:

Adierazpenak hitzez hitz:

- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen etorkizuneko eredia zehazteko hausnarketa estrategikoaren prozesuaren Ondorioei buruzko Txostena: **14/06/2010**

Alde: EAJ-PNV, Alkarbide, PSE eta PP

120. orria

*"Zerbitzuak eman behar dira hirugarren sektorearekin eta enprekin elkarlanean eta, hortaz, sare publikoaren zatitza hartuko dira. Hain zuzen ere, herritarrek gizarte zerbitzuen euskal sistema bezala ezagutuko duten ardura publikoko sarea."*

- EAJ-PNV, Alkarbide, PSE eta PP batzarkide-taldeen mozioa, "Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen etorkizuneko eredia zehazteko hausnarketa estrategikoaren prozesuaren Ondorioei buruzko Txostenari": **17/06/2010**

*"Gipuzkoako Batzar Nagusiek bereak egiten dituzte "Gipuzkoako gizarte zerbitzuen etorkizuneko ereduaren" ondorioak, hain zuzen ere, 2010eko ekainaren 14ean aurrekeztutakoa eta segidako atalak dituen:*

*1. 2020 ikuspegia*

*2. Balioak*

*3. Eredua, laburbilduta: Modelo, resumido en las siguientes ideas fuerza:*

*a. Komunitate-ikuspegia, hain zuzen ere, pertsonan oinarritutakoa, eta norberaren beharrei aurre egiteko zerbitzuen eta prestazioen diseinua duena.*

*b. Hirugarren sektorearekin eta enprekin hitzartutako sare publikoa, eta administrazioak bermatuko ditu herritarrentzako zerbitzu trebeak zein egokiak.*

*c. ..."*

- Mixto/Aralar batzarkide-taldearen mozioa, "Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen etorkizuneko eredia zehazteko hausnarketa estrategikoaren prozesuaren Ondorioei buruzko Txostenari" **17/06/2010:**

*"Gizarte zerbitzuen sorkundeak eragin du zerbitzu horietako asko irabazi asmorik gabeko entitate eta elkarten eskuetan egotea. Ondo deritzogu gizartearen ekimenarekin elkarlanean aritzeari, beti ere ahaztu gabe zerbitzuaren ardura administrazio publikoarena dela eta Foru Aldundiaren betebeharra ere badela elkarte horiek gipuzkoarron diru publikoarekin egiten dutenaren gaineko kontrola zorrotz eramatea. Beste kontu bat sektorean etengabe sartzen ari diren enpresa merkantilak, enpresa horien helburu bakarra erabiltzaile*





*zein sektoreko langileen bizkar etekinak maximizatzea eta gastuak minimizatzea delarik. **Gipuzkoako Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatzen diote Gizarte Zerbitzuen hirugarren sektorearekin elkarlana sakontzeko, beti ere elkarteek ematen dituzten zerbitzuen kalitatea eta egokitasuna zorrotz bermatuz. Halaber, Foru Aldundiari dei egiten diete Gizarte Zerbitzuetan aritzen diren enpresa merkantilen jarduera, zerbitzu emale bezala, mugatzeko, murrizten joateko helburuaz.***